



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Asteazkena
2009-06-10

VIIURTEA 1.724.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Marrakzi lehiaketan parte hartu zutenen lanak ikusteko jendetza bildu zen, herenegun, Kultur Etxean. ESTI EZEIZA

TURKIARA HURBILTZEKO EKIMENA MARTXAN


TOLOSA Herenegun pintura erakusketa inauguratu zuten Kultur Etxean; etzi turkiar jakiekin afaria izango da Fronton jatetxean 2

I. Sagardo Eguna antolatu dute larunbaterako

LEITZA 18:00etatik aurrera Karrapen sagardoa, trikitilariak, bertsolariak, pintxoak,... egonen dira 7

Euskal presoen argazkiak plazatik kendu izana salatu du AAMk

VILLABONA «Ertzaintzak gauzez, ilunpean, kendu» zituela salatu dute 5



REBEKA CALVO

«Ikerren marka hobetzeko» erronka du Patxi Caminosek

TOLOSA Iker Karrera 11 aldiz igo zen Txindokira 24 ordutan; abuztuaren 8an hau hobetzen saiatuko da 6



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

IES Hernani BHI
A. Iturriaga - K. Labaka



ELEKTRIZITATEA

- Instalazio elektriko eta automatikoak (Erdi Maila)
- Instalazio Elektroteknikoak (Goi Maila)

MEKANIKA

- Mekanizazioa (Erdi Maila)
- Proiektu Mekanikoen Garapena (Delineazio mekanikoa) (Goi Maila)

A. ITURRIAGA Santa Barbara auzoa z/g Tel.: 943 551188 Faxa: 943 552271
K. LABAKA Karmelo Labaka 7 Tel.: 943 551958 Faxa: 943 330550
institutua@hernanibhi.com • www.hernanibhi.com • 20120 HERNANI

AURREMATRIKULA EPEA EKAINAREN 1etik 12ra



Turkia ezagutzeko bertako jakiak dastatuko dituzte

Kultura » Turkesak antolatutako ekitaldiei amaiera afalduz emango diote; marrazki lehiaketako lanak ikusgai daude.

ERREDAKZIOA

Turkesa Kultur ekimenak, kulturaren arteko elkarbizitza bultzatzeko eta Turkia ezagutzera emateko asmoz hainbat ekitaldi antolatu ditu aurten ere. Hasteko, herenegun iluntzean inauguratu zen Kultur Etxean jarrita dagoen pintura erakusketa. *Beste kulturetako jendearekin elkarbizitza* lelopean burututako lehiaketan parte hartutako gaztetxoek lanak ikus daitezke bertan. Denera, 40 lanetik gora aurkeztu zituzten 7 eta 13 urte bitarteko tolosarrek.

Inaugurazio ekitaldiarekin batera, sari banaketa ere izan zen herenegun. 7 eta 9 urte bitartekoek

mailan, Iker Lekuona izan zen irabazlea, eta bigarren, Naia Imaz geratu zen. 10-12 urte artekoetan berriaz, Heiko Callens geratu zen lehendabiziko postuan, eta Maider Imaz bigarren. Azkenik, 13-15 urte bitartekoetan Idoia Milan izan zen txapelduna, eta Sara Zabala txapeldunordea.

Etzi, turkiar jakiak Frontonen

Turkiar asteko azken ekitaldia etzi izango da. Fronton jatetxean Turkiako zapore tipikoak ezagutzeko aukera izango da. Yogurtarekin, berenjekin, bulgurrarekin eta beste hainbat produktuekin sukaldatuko dute bertan. Gainera, afarian zehar, Sükrü Karakus derbitxe bat bezala bueltaka ikusteko aukera ere izango da. Hau bere lan berriaren aurrerapena izango da. *Los jardines del Sufi* izeneko proiektuan ari da lanean orain. Eta ezer falta ez dadin, Semak sabel dantza erakustaldi bat egingo du.



Herenegun iluntzean jende ugari bildu zen Kultur Etxean, marrazki lehiaketan parte hartu zutenen lanak ikusteko. E. E.



Erakusketa inauguratzearekin batera, lehiaketako irabazleei sariak banatu zizkieten herenegun. E. EZEIZA

Kritika onak Orfeoarentzat, bere azken saioan

Kultura » Tolosako Orfeoia Intermetzorekin batera emanaldia eskaini du Riojaforumen; oso harrera ona egin diote.

ERREDAKZIOA

Tolosako Orfeoia Logroñoiko (Errioxa, Espainia) Riojaforumen izan zen, eta bertan, opera eta zarzuela denboraldiko itxiera jaialdi lirikoan parte hartuz. Arrakasta handia izan zuen ekitaldiak, horren adierazle da *Diario de Rioja*



Tolosako Orfeoiko kideak Logroñoiko emanaldia prestatzen ari ziren bitartean. HITZA

egunkariak bere orrietan jasotako kritikak. Izan ere, bertan oso ongi hitz egin zuten tolosarrek eta gaitzetzeko musikariek eskaintako emanaldiaren inguruan.

Internezzok gonbidatu zituen tolosarrek, abesbatza sendo bat osatzeko asmoz. Izan ere, Tolosako Orfeoia askotan egiten du lan Intermetzorekin. Hau, jatorri ezberdinetako abeslari eta musikariz osatutako taldea da. Denera, kalitate handiko musika taldea osatzen dute eta Espainiako opera antzerki garrantzitsuetan hartzen dute parte.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Ezinduentzako garraiobidea.** Ezinduentzako Scooterra salgai. Urtebeteko garantia. 1.600 euro. Ezinduentzako gurgildun aukeri elektrikoa salgai. 20 kilometrotako autonomia. 2.000 euro. Urtebete-

ko garantiarekin. Interesatuak deitu 605 77 16 07ra.

■ **Taxi lizentzia.** Tolosako taxi lizentzia saltzen dut. Informazio gehiago nahi izanez gero: 616 54 29 60. Kotxearekin edo kotxerik gabe.

Laburrak

Naturaldia amaitzeko, Luis Rojasen hitzaldia izango da

NATURA » Tolosa Naturaldia ekimenaren baitan, Luis Rojas Markosek hitzaldia eskainiko du hilaren 13an. Hau Chillida Lekun izango da. *Elkartasuna. XXI. mendean bizirik irauteko tresna* izenburupean, mintzaldiak aurten ingurumenaren harremanaz jardun duten Tolosa Naturaldia jardunaldiak amaiera emango die. Gaur egun, New York University-ko psikiatria irakaslea da Luis Rojas eta New Yorkeko Medikuntzako Akademiako kide ere bai.

Koadrila eguneko txartelak salgai daude asteburuan

AISIA » Sanjoanetako Koadrila Eguneko bazkarirako txartelak salgai daude. Aurten, hilaren 20an, larunbatean ospatuko da. Bazkarirako tikitak Orbela taberna eros daitezke etzi, 19:00etatik 21:00etara; eta hilaren 13an, larunbata, 12:00etatik 14:00etara. Koadrila bakoitzak txartel guztiak batera erostea gomendatzen dute antolatzaileek. Bestetik, antolatzaileek eskerrak eman nahi dizkie, egun hori dela eta, lagundu dieten taberna guztiei.

Tolosa CFko xabalina eta pisu jaurtitzaileak Avilesen

ATLETISMOA » Aurreko asteburuan, Avilesen (Asturias, Espainia) atletismoko zerupeko gazteen autonomien arteko Espainiako Txapelketa jokatu zen. Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoa ordezkatuz, Tolosa CFko zortzi atleta izan ziren. Tartean, Oihana Pelaez eta Josu Basagoitia. Lehendabizikoa pisu jaurtiketan, zazpigarren geratu zen, 10 metro eta 20 zentimetroko markarekin. Bigarrena, xabalina jaurtiketan, 15. saikatu zen, 39 metro eta 7 zentimetrorekin.

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...

Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA



Aiz Orratz elkartean xake txapelketa

XAKEA » Aiz Orratz-Veleta elkartearen 75. urteurrenako ospakizunen baitan, xake txapelketa jokatu zen pasa den igandean elkartean bertan. Eskualdeko 20 jokalarik hartu zuten parte, Tolosa, Ibarra, Alegia, Villabona eta Asteasuokak, hain zuzen. Xake azkarreko txapelketa izan zen, jokalaria eta partida bakoitzeko bost minuturakin. Guztira hamaika txanda jokatu ziren eta azkenean Sabino Etxeberria tolosarra izan zen irabazlea. Bigarren Xabier Mujika ibartarra sailkatu zen eta hirugarren Iñaki Etxeberria tolosarra. Infantil hobereena Mikel Muguruza asteasuarra izan zen, eta alebin hobereena Daniel Intxaurren tolosarra. HITZA

Eskualdeko igerilariek emaitza onak lortu dituzte Castellon

Igeriketa » Eneka Muñagorri marka berriak ezarri zituen; Ion Azpiazu eta Amaia Pagolak ere maila ona erakutsi zuten.

ERREDAKZIOA

Espainiako Kluben Arteko Igeriketa Txapelketa jokatu berri da Castellon (Herrialde Katalanak), eta bertan eskualdeko ordezkari-tza ere izan da. Ion Azpiazu, Amaia Pagola eta Eneka Muñagorri aritu dira, hain zuzen ere, Barduliaren koloreak defendatzen.

Taldeari dagokionez, Bardulikoak mutilen sailkapenean nagusi ziren, eta ondorioz, ohorezko mailara igotzea lortu dute. Emakumezkoak, ordea, ez zituzten hain emaitza onak lortu, eta ezin izan zioten lehenengo mailari eutsi.

Muñagorri marka berriak

Banaka emaitza oso onak lortu zituzten eskualdeko igerilariek. Eneka Muñagorri, esaterako, Euskadiko 16 urtekoen 400 estilo



Eneka Muñagorri, Ion Azpiazu eta Amaia Pagola. HITZA

eran marka berria ezarri zuen, eta baita Gipuzkoako 200 estilo eran ere. Mainer Gaztañaga ordiziarrak jarri zuen marka 1990ean, eta ez zuen inork gainditu orain arte. 5-01-59 egin zuen 400 estilo eran, eta 2-21-09 200 estilo eran. 200 bizkarrez, 2-21-09 egin zuen, marka polita eginez.

Ion Azpiazu ere «bikain» arituzen. 50 libre eran hartu zuen parte, 23-04 marka ona ezarri. 4x50eko

erreleboetan ere aritu zen estilo eta libre eran, eta bere taldea izanzen garaila. Amaia Pagolak, bestalde, marka «oso onak» egin zituen. 400 libre eran 4-35-61 egin zuen, eta 200 libre eran 2-09-16.

Igerilariek esan bezala, emaitza hobeak lortzeko orduan zeresan handia ari dira izaten neoprenoko bainujantzi berriak, azken teknologiez hornituak, ia igerilari gehienek erabiltzen dituztelarik.

3x3 saskibaloia txapelketa izango da larunbat honetan

Saskibaloia » TAKEK antolatzen duen ekimena goizez eta arratsaldean izango da; sari ugari izango dira irabazleentzat.

ERREDAKZIOA

Larunbat honetan, hilaren 13an Tolosako XI. 3x3 saskibaloia txapelketa jokatu dute. «Azken urteetako giro bikaina errepikatu nahian» TAKEK antolatu du ekimena aurtun ere.

Taldeak hiru mailatan banatuta egongo dira, hau da, alebinak (1997-1998), infantilak (1995-1996) eta koadrilak. Hala, goizean alebinak eta infantilak ariko dira. 09:00tan hasiko dira, eta 13:00a arte jokatu dituzte partidak Gernikako Arbola Plazan. «Tolosako harrobia ziurtatuta dagoela erakutsi nahi dute gazteek, maila bikaina dutela erakutsiz», azaldu dute TAKEkoek. Finalak, berriz, arratsaldean jokatu dituzte.

Parte hartzen duten guztiak ka-

miseta bat jasoko dute, eta horretaz gain, sari gehiago egongo dira: lehenengo sailkatuak 400 euro jasoko ditu, eta baita opari txartela ere Shanti Kirolak dendarako; bigarrenak 200 euro eta opari txartela Shanti Kirolak.

Arratsaldean koadrilen arteko txapelketa jokatu dute. Hauek San Franzisko ibiltokian ariko dira. 16:00etan hasiko dira partidak eta 21:00ak bitarte ariko dira lehen. Izena emateko 10 euro ordaindu behar dira, eta kasu honetan ere kamiseta jasoko dute guztiak. Sari gehiago ere izango dira irabazleentzat: txapelkunak 4 afari lortuko ditu Fronton jatetxean eta 4 sarrera La Perla talasoterapiari; bigarrenak 4 afari Burrentzi erretegiari eta elikagai bikainez osaturiko saski bat; eta hirugarrenak 4 afari Orue erretegiari.

Aurtun berrikuntza bezala, koadrilen txapelketan zehar, saskibaloian gurrildun aukian jokatzeko duten Bera Berako jokalariek izango dira, «beraien abilezia guzti erakutsiz».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

Asteburua mendian igaroko dute eskualdeko mendi taldeek

ERREDAKZIOA

Eguraldi onak eskualdeko mendi taldeak irteerak egitera animatu ditu. Mendizaleek ez dute etxean geratzeko aitzakiarik izango asteburu honetan, hortaz, Aizkardik, Oargik, Alpinok eta Sagainek irteera dituzte aurreikusita.

Villabonako Aizkardik Pirinioetara egingo du irteera igandean. Zurizatik (1200m) abiatuko dira eta, Peñaforca (2391m) igoko dira, Lenitoko lepora (2192m) jaisteko. Siresako (892m) herrian amaituko dute ibilaldia.

7 ordu inguruko ibilaldia izango da, 23 kilometro inguru eginik. Izena emateko 64971782 telefono zenbakira deituz egin daiteke 20:00etatik 22:00etara, ostegunera arte edo ostegunean elkartean bertan 21:00etatik 22:00etara. Igandean 06:00etan abiatuko dira Olaederra kiroldegitik.

Oargiren eskutik, bi aukera

Tolosako Oargik, berriz, arroilen jaitsiera eta mendi irteera antolatuko ditu astebururako. Lehen plana Ordesako bailarako G.Gloces, Furco eta Viandicon egingo dute. Mendi irteera, berriz, Panticosara antolatuko dute. Garmo Negro (3051m), Algas (3033m) eta Arguala (3046m) mendiak igoko dituzte.

Irteera honetan parte hartzeko 688698642 telefono zenbakian edo info@oargi.org helbidean egin daiteke.

Alpino egunpasa Kanpezura

Tolosako Alpinok igandean egingo du irteera. Hain zuzen ere, Larraonatik Kanpezura egingo dute zeharkaldia. Izena elkartean eman daiteke (Gudari 5, 943 652789) Bazkideek 11 euro ordaindu beharko dute, eta ez bazkideek 13 euro.

Iraupena 8 ordukoa da. Autobusa Santa Klaratik 07:30ean izango da.

Sagain, Urkiolara

Asteasuko Sagain mendi taldeak Anboto inguruetan antolatuko dute irteera iganderako, «Urkiolako Natur Parkearen barrenak ezagutzeko».

Bi ibilbide antolatuko dituzte, motza eta luzea Ibilbide txikia (Krutzetako Mendatea - Orixol - Zabalaundi - Andasto - Arrazola) 3 ordu eta erdikoa da, eta Ibilbide handia (Krutzetako Mendatea - Orixol - Zabalaundi - Tellamendi - Lurgorri - Larrabil - Besaide - Arrazola) 5 ordukoa.

Autobusa Asteasuko plazatik abiatuko dagoizeko 08:00etan. Interesatuak kiroldegian eman dezakete izena, bihar arte (12 urte azpikoek 5 euro, gainontzekoek 10).

Kukuaren etorrerak iragarriko ditu jaiak

Anoeta » Pasa den asteburuan atarikoak izan ondoren, gaur hasi eta igandera arte luzatuko dira aurten Korputz jaiak.

ERREDAKZIOA

Ohi bezala, jaien iragarle den kukuaren zain izango dira anoetarrik. Bada, azkenean heldu da eguna eta gaur 19:00etan ekingo diete Korputz jaiak, kukuaren etorrerarekin, hain zuzen. Bost minutu lehenago, 18:55ean herriko txalapartariak plazan elkartuko dira.

19:00etan, esan bezala, txupinazioa eta kukuaren jaitsiera izango dira kanpai hotsekin eta ume eta gaztetxoan danborrada izango da Lagunak txarangarekin. Ondoren, Loatzo musika eskolako trikitilariak kalejira egingo dute herrian zehar. 19:30erako, berriz, sardina jatea antolatuko du Kuku Elkartek

plazan. 23:00etan, berriz, erromeria izango da Elustondo anai-arrebekin plazan.

Ekitaldi hauek guztiak datozen egunetarako atek irekiko dituzte. Hain zuzen, biharko umeen eguna izango da. Hori dela eta, bereziki haiei zuzenduriko emanaldiak izango dira nagusi; txokolate jatea, barrakak, buruhandi eta erraldoiak, pailazoak... izango dituzte.

Saiheski jaterako txartelak gaur arte salgai

Aurten ere herriko festen egitarauaren barruan ezker abertzaleak saiheski jatea antolatuko du biharko. Bertara joan nahi dutenentzat txartela erosteko azken eguna gaur izango da. Itzuli, Arkupe, Laia eta Buztina tabernetan eskura daitzke. Dagoeneko 170 lagunetik gora daude izen emanda.

Halaber, saiheski jatea antolatzeko lagundu nahi duenak Itzulini du izena emateko aukera.

Anoetako ezker abertzaleak herritarrek zoriondu nahi izan ditu

ERREDAKZIOA

Anoetako ezker abertzaleak «herritarrek zoriondu nahi izan ditu», azken hauteskundeetan izandako «emaitza onak» direla eta. «Herri honek zer behar duen garbi erakutsi dugula», gaineratu dute.

Ezker abertzaleak Iniziatiba Internazionalista ondoren «ezker abertzaleak herrian erreferente politikoa eta soziala izaten jarraitzen duela argi geratu da», ezker abertzalearen esanetan.

Ezker abertzaleak izan dituen emaitzak kontutan izanda, «herri honi zor zaizkion eskubideen alde lanean jarraituko» dute eta «berresten» dute. Amaitzeko, deialdia egin diete herritarrei: «Animatzen diegu gurekin batera Euskal Herriak behar duen aldaketaren aldean indarrak biltzera».

Gutunak

Tolosak ezker abertzalea indartu du

Europako defizit demokratikoa sakona da eta oso urruti dago herritarrengandik; neoliberalismoaren eta estatuen goitik beharkeko inposizioa ez da tolosarren gustukoa. Horregatik, hamar tolosarretatik lauk bakarrik eman dute botoa.

Eskerrik asko, ezker abertzaleari botoa eman diezuen 1.641 tolosarri. Mila esker, Iniziatiba Internazionalistaren elkartean frogatzen gaituzte, lanean aritu zirenean militante eta kide guztiak. Urrats bat eman dugu jokaleku demokratikoa lortzeko Euskal Herriarentzat.

Ezker abertzalea oso pozik dago. Emaitza bikainak izan dira. Errepresioaren gainerik, botoetan igo dugun bakarrak gara, 2009ko autonomikoekin eta 2004ko europarrek alderatuta. Ezker abertzaleak hirukoizten ditu Aralarren eta EAren botoak; ia bikoizten ditu PSOErenak; eta ia-ia EAJrekin berdinduta dago. EAJk ezker abertzaleari 171 boto bakarrik kendu dizkio, baina EAJk 2009ko autonomikoetatik 1.644 boto galdu ditu; Aralarrek eta EAk 947; eta PSOEk 513; ezker abertzaleak 278 boto irabazi dituen bitartean.

Ezker abertzaleak tolosarrek emandako konfiantza hori tinko erabiliko du gatazkari konponbide demokratikoa emateko, bloke soberanista eratzeko, nazioarteko indarrak implikatzen dituzten negoziazioaren alde eta Loiolako mahaian

uztitzakoa ixteko, Euskal Herriaren, herritarren eta langilearen interesak defendatzeko. Bakea erakitzeko, baina ez errendizioaren eta salbuespenetako bakea; elkarriketa politikoaren eta herri borondatearen errespetuzko bakea baizik; justizian eta demokrazian oinarritua, alderdien arteko adostasunaren eta herri atxikimenduen ondorio gisa.

Euskal Herria nazio bakarra da Ebrotik Aturrira. Eta Euskal Herriaren aldeko botoak Iparraldean ere, abertzaleetara sendotu dute. Europak, halere, eskuinera jo du eta sozialdemokraziak porrotatu egin du. Bestalde, Frantziak eta Espainiak indartsu daude Euskal Herriaren. Eta horren aurrean, gogoeta egin behar dugu guztiok - apaltasunez, adimenez eta efizientziaz - ezkerreko herri abertzalearen indarrak biltzeko. Eragile guztien beharra baitago bi estatuei eta eskuinari aurre egiteko, justiziazko eta demokratiazko parametrotan eta demokratiazko kualitatiboa egiteko; euskal estatu sozialista, euskalduna, ez-patriarkala eta naturaren aldeko iraunkorra erakitzeko.

Estatuak eta hemengo kolaboratzaileek traba guztiak jarri dituzte ezker abertzalea desagerrarazteko mapa politikotik, baina ezker abertzaleak erakutsi du oinarri sendoa duela ezkerreko herri abertzalea gidatzeko. Kanpainak erakutsi du ere Tolosako alkatearen jarrera ez demokratikoa: kalean harrapatu dute Iniziatiba Internazionalistaren kartela kentzen.

Inaxio Agirre. Tolosako ezker abertzalearen izenean.

Hutsunea Betez elkartean eskutik, Baztanera kultur irteera

Villabona » Besteak beste Amaiurko gaztelua bisitatuko dute, Juantxo Agirre arkeologoaren eskutik.

ERREDAKZIOA

Heldu den ekainaren 14rako, igandearrekin, Hutsunea Betez elkartek Baztanera irteera kulturala egingo du. 09:00tan abiatuko dira Olaederra kiroldegitik eta 20:00-20:30ak aldera egingo dute itzulerara.

Ibilbidea Amaiurren hasiko da, herria ezagutuko dute eta ikus-entzunezkoa izango dute. Bertan pastak eta tea ere egingo dira.

Ondoren, Amaiurko gazteluaren hondakinak ikusiko dituzte eta Juantxo Agirre arkeologaren eskutik.

Bazkariaren ondoren, Zugarramurdira

Behin bisita amaitzen dutenean, bazkaria egingo dute. Antolatzaileek jakinarazi dutenez, norberak bere bazkaria eraman beharko du etxetik.

Bazkariaren ondoren ibilaldi kulturalarekin jarraituko dute. Hain zuzen ere, Urdazubira joango dira eta bertako kobazuloak ikusiko dituzte. Horretarako gidari baten laguntza ere izango dute.

Egun honi amaiera ederra emateko Zugarramurdiko kobazuloaren ingurua ere bisitatuko dute.

Irteera honen inguruko informazio gehiago lortzeko bi telefono zenbaki eman dituzte: 943694297 (Anarengatik galdetu) edo 943690524 (Maxurengatik galdetu).



TOLOSAKO
INMAKULADA
IKASTETXEA



Kondeko aldaia 5B Tolosa
www.inmakuladatosola.com
943673629

HEZIKETA ZIKLOAK

Goi maila

- Gizarte Integrazioa
- Haur Hezkuntza
- Osasun Dokumentazioa
- Diagnosi Irudia

Erdi maila

- Erizaintza laguntzailea
- Farmazia teknikaria

AURREMATRIKULAK
EKAINAK 1-12
BITARTEAN

ZATOZ GU EZAGUTZERA

Eneko Lasa Gipuzkoako eta Euskadiko txapeliduna izan da

Alegia » Arrantzako Lehiaketa jokatu zen Alegian eta Euskadiko selekzioarekin Espainiako Txapelketan ariko da.

NEREA URBIZU

Asteburuan zehar, larunbatean Gipuzkoako Arrantza Txapelketa jokatu zen Alegian, eta igandean, berri, Euskadikoa. Bada, bietan Eneko Lasa alegiarrak izan da garai-le infantilen mailan (14-18 urte).

Bi txapelketak beraz, irabazi ditu arrantzaletan gazteak eta orain Espainiako Txapelketan ariko da, beste hiru euskaldunekin batera, Euskadiko Selektzioa osatuz: Diego, Axel, Eneko eta Xabier, hain zuzen.

Hilaren 25ean Valentziako (Herrialde Katalanak) Turia ibaian jokatuko da Espainiako Txapelketa



Ezkerretik bigarrena, Eneko Lasa, Euskadiko Selektzioako arrantzaleekin. HITZA

eta euli artifizialekin ariko dira bertan ere, amuarrainak arrantzatzeko.

Bestalde, Lasa uztailean Txerriko Errepublikara joango da, iazko Espainiako Txapelketan Mun-

dukoan aritzeko sailkatu baitzen. Bertan munduko arrantzaletan honen lehiatuko da. Aurtengo Espainiako Txapelketan ere, datorren urteko Munduko Txapelketan aritzeko txartela lor dezake.



Aurrekontuko hornikuntza 1.400.000 eurokoa izango da. HITZA

Inbertsioak egiteko laguntza plana ateratu Foru Aldundiak

ERREDAKZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiak inbertsioak egiteko laguntza plana ateratu du: plan honekin ondare kulturala eta naturala berreskuratu eta ezagutzera eman nahi da eta, aldi berean, agerian jarri nahi dira parke naturaletan eta biotopoetan jarduerak sozioekonomikoa bultzatuko duten azpiegiturak.

Diru laguntzen onuradun izan daitezke Enirio Aralar Mankomunitatea. Udalek eta entitateek egiten dituzten gastu guztiak izango dira diruz laguntzekoak, baldin eta gastu horiek parke natural edo biotopo babestu izendatutako gune naturalen barruan egiten badira eta, ondorengo xedeetarako: kultur ondarea eta natur ondarea berreskuratzea eta balioan jartzea; azpiegiturak egitea, gune horien erabilera publikoa sustatzeko edo,

lehen mailako sektorearen gizar eta ekonomia mailako jarduerak sustatzeko.

Mendien artean Aralar dago eta erabilera publikorako prestatutako funtzio anitzeko guneak ditu. Mendi horietan bat egiten dute basoak, mendiko soroak, paisaia bereziak eta jolas guneak, besteak beste. Ingurunea babesteari dagokionez, parke naturaletan eta biotopoetan osatzen duten babestutako espazio naturalen sarea garatzea da helburu.

Landa Ingurunearen Garapeneko Sailaren eskumenetako bat Gipuzkoako Lurralde Historikoko gune natural babestutako kudeatzea da. Hori betetzeko habitat naturalak kudeatu eta aisialdiaren erabilera antolatuzko erantzukizuna gainean hartu ditu, besteak beste.

Euskal presoek argazkiak kendu dituzte gauzez, herriko plazatik

Villabona » Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak salatu duenez, «Ertzaintza izan da kendu dituen».

ERREDAKZIOA

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak jakitera eman duenez, herenegun gauetan (astelehenez astearterako gauean) «Ilunpean inork ez ikusteko moduan» Villabonako presoek argazkiak kendu zituzten herriko plazatik; bertan zeuden azken urteetan. «Ertzaintzak kendu ditu argazki hauek. Villabonako gehiengo sozial, politikoa eta sindikalak urteetan egindako lanaren erakusgarri izan dira Villabonako euskal preso

politikoen argazkiak eta kendu egin dituzte».

Villabonako Amnistiaren Aldeko Mugimenduak «argi esan nahi die Patxi Lopezen Gobernuari, euren polizia armadari eta dena delakoei baita EAJri ere, Villabonako torturazaleak diren ertzainak baino askoz maiteago ditugula euskal presoak».

«Argi geratu da azken hilabeteotan Villabonan eman diren jazoezkinak. Eta aldi berean, «Villabonak erakutsi duen neurrigabeko elkartasunarekin ere». Horregatik eta honen aurrean, «argazki bat kendu eta mila jarriko ditugu».

«Villabonako preso politikokoak Villabonako kaleetan egongo dira eta baita billabonatarren bihotzetan ere. Maite ditugulako eta ez ditugula ez segundo bakar bat ere ba-

karririk utziko. Eta maitasuna ez da sekulan kartzeleratuko».

Villabonako kaleak presoek argazkiekin beteko dituztela adierazi dute, eta jendeak hori egitera animatu nahi izan zuten. «Baten lekuan 1000, baietz!»

Aldi berean zera adierazi dute herenegungo ekintza salatu dutenek: «Muxuak Villabonako preso politikoa guzti, agur eta ohore!»

Bukatzeke, datozen egunetan hainbat ekitaldi antolatuko dituzte gertaera salatzeke eta antolatzen dituzten heinean jakitera emango dituzte.

Egun, Villabonan bederatzik euskal preso daude: Manex Castro, Mikel Garmendia, Joxe Mari Olarra, Pello Zelarain, Julen Zelarain, Oskar Zelarain, Iñigo Guridi, Emilio Salaberria eta Eneko Galarraga.

Laburrik

Igandean, Bedaio III. Mendi Martxa izango da

BEDAIO » Bedaio III. Mendi Martxa eta BTT Martxa igandean izango da. Artubi Elkarteak antolatuta hainbat enpresaren laguntzaz 07:30ean aterako dira oinezkoak eta 08:30ean txirindulariak. Izena mendimartxa@bedaio.com edo www.bedaio.com helbideetan eman daitezke eta egun berean proba hasi eta ordu erdi lehenago. Paraje ederrak ditu ibilbideak.

Kinto afaria antolatu nahi dute berastegiarek

BERASTEGI » 1966. urtetik 1970. urteen bitartean jaiotako berastegiarek kinto afaria egin nahi dute aurtengo. Hilaren 20an antolatu nahi dute (larunbata), Urrietako Oianume jaietxera joanez. Bertara joateko izena astelehenera arte eman daitezke (hilak 15) Mari Jose Atxukarrori deituz (656 71 00 73, 20:00etatik 21:00etara bitartean).

Udako eskaintzatan izena emateko azken eguna gaur

ALEGIA » Alegiako udako eskaintzatan izena emateko epea gaur bertan bukatzen da. Ludoteka (2-12 urte) eta 8-16 urte bitartekoentzako ikastaroak daude. Ikastaroak hauek dira: esgrima, batuka, piraguismoa, orientazio lasterketa, mendiko bizikleta eta gimnastika ermitikoa. Egutegiak desberdinak dira eta informazioa Kultur Etxean lor daitezke (943 65 46 98).

Gaiem
Larabide eskola,
post arrazoi,
bete-beteen
asmatzerdi

1. Aukera zabalena
2. Etorkizuneko
3. Enpresekin elkarlanean
4. Zuzentzat egina
5. Ikasteko eredu aurreratua

heziketa zirkloak egiteko biderik onena

La granja zuzen, 216 / 20240 ORDIZA / 943 88 00 62 / www.gaiemeskola.org

«Ikerren marka hobetu nahi dut; berak 11 aldiz igo zuen Txindoki»

Tolosa » Iker Karrerak 24 ordutan 11 aldiz igo zuen Txindoki; Patxi Caminos abuztuaren 8an saiaturako da marka hobetzen.

REBEKA CALVO

Abaltzisketan bizi den Patxi Caminos (Tolosa, 1973) «Txindokiko langa pasatzeko irrikitan» dago jada, izan ere abuztuaren 8an erronka «polita» dauka bertan.

Orain urte batzuk Amezketako Iker Karrera mendilasterkariak 11 aldiz igo zuen mendia 24 ordutan zehar, eta orain Caminosek hartu dio lekukoa. «Nire asmoa, printzipioz behintzat, Ikerrek egindako marka hobetzea da; berak 11 aldiz igo zuen Txindoki eta nik gutxienez 12 egin nahi ditut», dio. Lortuko ez balu, hala ere, bere helburua «gutxienez lan txukuna» egitea izango da.

24 orduz ibiliko da lasterkaria Txindokin gora eta behera eta ondorioz garrantzitsua da ateratzeko ordua eta egun horretan izango den ilargia kontutan hartzea. «12:00etan-edo atera nahi nuen,

baina masajistarekin hitz egin eta berak esan zidan beharbada, 18:00etan hasetea egokiagoa dela. Baina oraindik ez dakit. Abuztuaren 15ean egiteko asmoa ere bannuen, baina ilargi betearekin asten tokatzen da, eta beraz, aurreratzea erabaki dugu. Oso garrantzitsua da ahal den gaurik argitsuen a aukeratzea mendian zer bait ikusi ahal izateko», argitu du.

Urtariletik entrenatzen

Urtariletik ari da entrenatzen, nahiz eta oraindik ez den Txindokira bertara gerturatu: «Memento Txindokira ez naiz etorri, oraingoz Leaburu eta Belauntza inguruan entrenatzen dut. Prestatzaile batekin aritzen naiz, Gineako tipo bat, Ricardo, eta horrekin

Memento Leaburu eta Belauntza inguruan ari da entrenatzen; Txindokira 15 egun barru joango da

gabilza. Fondoan lantzen ari da, «erresistentzia gehienbat», gaineratu du.

Caminos 15 bat egun barru joan-



Abuztuaren 8an 24 ordutan Txindokin gora eta behera ibiliko da Patxi Caminos; gutxienez 12 aldiz igo nahi du. R. CALVO

go da Txindokira, «larga pasatzeko irrikitan» dago, jada; «15 bat egun barru-edo Txindokira etorriko naiz eta denbora gutxi barru ere 12 bat ordu egingo ditut jarraian, probatzeko». Izan ere, lekuan bertan eta ordu luzez entrenatzea ere egokia dela dio, «kazken txanpako entrenamenduak nola egin jakiteko», batez ere.

Tolosarrak ez du inoz horrelako probarik egin, baina sasoiaren dagoela uste du eta saiaturako behintzat, saiaturako da. «Prestatuta joango naiz, astean zehar asteleheneren bakarrik hartzen dut atsedean, besteetan entrenatzen aritzen naiz, lau orduz egunean».

Dieta makrobiotikoa

Caminos urtariletik entrenatzen ari den arren «istorioa nahiko luzea» dela dio: «Orain urtebete-edo

hasi nintzen dieta makrobiotikorekin erabat, izan ere mendian asko ibiltzen nintzen eta katarro asko hartzen nituen eta bularraldea hartzen zidan beti. Burdindegi batean egiten dut lan eta bertara emakume bat etorri ohi zen, Lurdes, eta hari ere komentatzen nion tarteka nola ibiltzen nintzen katarroekin eta beti esaten zidan berarengana joateko, dieta makrobiotikoa egiten jarriko ginela eta horrela hasi nintzen. Ondo zetorkidala ikusi eta jarraitzea erabaki nuen».

Dieta makrobiotikoak mesede egiten dio Caminosek eta horregatik erabaki zuen Txindokiko erronka egitea: «Ondoren ezagutu nuen Gineako tipoa eta hari kontu honen inguruan hitz egin nion eta saiatzeko esan zidan».

Arestian esan bezala tolosarra mendian asko ibili ohi da, baina

beste «zerbait egiteko gogo» ere bazuen, «erronka pertsonal moduan», argitu du.

Ingurukoek «erotuta nagoela esaten didate» eta azkenean «sinestu ere egingo» duela badio ere, jendeak animatu ere egiten diola esan du.

Horrelako probak egiteko, dena den, dirua ere behar izaten da, baina hori ere lotu du lasterkariak: «Ibarrako harategi baten, Orioko

Ingurukoek erotuta dagoela esaten badiote ere asko laguntzen ari zaizkiela dio Caminosek.

taberna baten eta gure enpresako makineria marka batzuen dirua jaso dut. Aralarrek, gainera, materiala utzi dit».

Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezin zergak ordaintzeko epea

ERREDAKZIOA

Ibarrako Udalak jakinarazi duenez, hilaren 30era arte, egun hau barne, ordain daitezke 2009. urteko Landa zein Hiri izaerako Ondasun Higiezin zergen ordainagiriak. Aipatu zergen ordainketak edozein aurrezki kutxetan edo banketxetan egin daitezke. Helbideratu-

tako ordainagiriak, aldiz, borondateko epearen azkeneko egunean kargatuko dituzte.

Adierazitako epea bukatzerakoan ordaindu ez diren kuotak %20ko errekaruarekin berandutza interesekin edo dagozkienez kostuekin kobratuko dituzte.

Berastegiko eta Elduaingo haurrak ere Aste Berdearekin bat

Ingurumena » Asteburuan zehar ekitaldi ugari izan zituzten; Ibaialde errekarren garbiketa, eguzki sukalden tailerrak...

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko beste hainbat herritan bezala Berastegin eta Elduainen ere pasa den asteburuan ospatu zuten Aste Berdea, hori dela-eta ekitaldi desberdinak izan zituztelarik.

Muñagorri eskolako haurrak

Aurreko asteko ostegunean Berastegiko Muñagorri eskolako haurrak Ibaialde erreka azterketarekin batera, erreka garbiketa egin zuten eta larunbatean, berriz, herriko plazan Eguzki sukalden erakusketa eta tailerra izan zuten ISF (Mugarik gabeko Ingenieritza) taldearen eskutik. Horiek horrela, gazteek kartoi eta zilar-papera erabiliz sukalde bat nola egin



Berastegiko haurrak Ibaialde erreka garbitu zuten larunbatean. HITZA

ahal den ikusi zuten. Igandean Elduaingo txanda izan zen. Goizeko bederatzietan plazatik abiatu eta Ibinera igo ziren. Handik, pista jarraituz, Mugara iritsi ziren eta

handik bueltatu ziren Elduainera. Helduek zein gazteek hartu zuten parte eta ondoren, herriko kontzejutabernan, hamaiketako egin zuten.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Ibarrako segalariak Otxandioko Mekoleta auzoan

IBARRA ■ Ikuskizun aparta eskaini zuten Otxandioko Mekoleta auzoan, Ibarratik eta Otxandio bertatik joandako segalari herrikoiek iragan larunbatean. Mekoleta auzoko jaien barnean, sega apustua antolatu zuten eta talde bakoitza

hiru segalarirekin aurkeztu zen. Amaieran zorroztaileak segan ikusteko aukera ere egon zen, ordubeteko lanak horretarako parada eskaini baitzuen. Otxandioko gazteak gogor hasi ziren baina ibartarrek hasieratik hartu zuten aurre.

Amaieran, desafioak jaiarekin bat egin zuten eta bi taldeen artean ez zen alde handirik egon. Segsa saioa ikusteko asmoz jende ugari elkartu zen Mekoletan. Herri kirolaren aldeko ekitaldi «xume» honekin gustura gelditu ziren. **HITZA**

Hainbat eragileren eskutik I. Sagardo Eguna antolatu dute larunbatean

Leitza ■ Karrapen sagardo dastaketaz gain pintxoak, trikitilariak eta bertsolariak egonen dira edanari laguntzeko prest.

ASIER IMAZ

Aurrera Kirol Elkarteak eta ALKE Kultur Elkarteak I. Sagardo Eguna antolatu dute hilaren 13an, larunbatean. Lan honetan, antolatzaileek Leitza Udalaren, herriko tabernen eta Gipuzkoako nahiz Nafarroako sagardogile elkarten laguntza eduki dute.

I. Sagardo Eguna herriko plazan ospatuko da 18:00etatik aurrera. Karrapen 16 sagardo postu kokatuko dituzte eta sagardoa bultzat-



Tolosaldean arrakasta handia eduki ohi dute sagardo dastaketek. Irudian Alegiako sagardo eta txakolin dastaketa. i.g.

Gipuzkoatik eta Nafarroatik 16 sagardo egile gerturatuko dira larunbatean plazara

ekoizle bakoitzak 84 botila inguru ekarriko ditu Leitza I. Sagardo Egunean dastatzeko

tzeko pintxoak, bertsolariak eta trikitilariak egongo dira.

16 sagardo ekoizle

Leitza Udalaren sagardo mota ugari dastatzeko aukera egongo da larunbatean, lehen edizio berezi honetara 16 ekoizle etorriko baitira.

Sagardo egileak nafarrak eta gipuzkoarrak izango dira. Hauek dira, hain zuzen: Petritegi (Astigarraga); Lizeaga (Astigarraga); Arratzain (Usurbil); Egi-Luze (Errenteria); Olaizola (Hernani); Iparragirre (Hernani); Barkaiztegi (Martutene); Larre Gain (Zaldibia); Ola (Irun); Añota (Azpeitia); Zaldibe (Abaltzisketa); Martitxonea (Aldatz); Larralde (Lekaroz); Behetxoneko Borda (Beruete); Lindurren Borda (Lesaka) eta Toki Alai (Lekunberri).

Sagardo Egunaren funtzionamenduari dagokionez, 3 euroren truke dastatzaileak basoa eta zortzi tiket erosiko ditu. Baso horrekin

ondorioz, zortzi sagardo mota probatzeko aukera egongo da. Edanari laguntzeko pintxoak jarriko dituzte herriko plazan. Hauekin batera trikitilariak eta bertsolariak egongo dira, Leitza I. Sagardo Eguna ahalik eta arrakastatsuen izan dadin.

«Xume-xume»

Juan Mari Barriola Leitza Kultur Elkarteak kidea da eta Sagardo Egunaren antolaketan buru belarri aurkitzen da. Karrape Irratian atzo aipatu zuenaren arabera, «xume-xume» ekin nahi diote egitasmo berri honi: «Antolatzen dugun lehen aldia da eta jendearen

erantzuna nolakoa den ikusi behar da. Aurrera begira berrikuntzak egingo lirateke baina lehenik ikusi egin behar da».

Antolatzaileek jendearen erantzuna nolakoa den ikusi nahi dute aurrera begira jarraitzeko

I. Sagardo Egunaz gozatzea gerturatzen denak Karraperen aurpegi berria ere gertutik ezagutzeko aukera edukiko du, Udaltxan egiten ari diren lanak medio.

Leitza Mugak ezagutzeko 3. irteera egingo dute hilaren 13an plazatik irtenda

A. IMAZ

Aurrera Kirol Elkarteak eta Mendibil Mendi Taldeak Mugarrien Itzuliaren hirugarren zatia antolatu dute hilaren 13an, larunbatean.

Herriko plazatik 07:30ean irtengo dira Plazaola-Kortekoborda itzulia egiteko asmoz. Antolatzaileek 5-6 orduko ibilbidea dela aipatu dute. Izena emateko Maimur edo Astiz liburudendetara joan behar da. Azkenik, Plazaolara joateko eta Gitarrabuelatik itzultzeko kotxeak behar dira ere aipatu dute.

Ibarrako Bartolo Jaiak 2009 antolatzeko Bartolaren batzarra, bihar

A. IMAZ

Bartola Jai Batzordeak batzarra egingo du bihar 19:30ean Kultur Etxean. Antolatzaileen esanetan, «bileran aurtengo jai herrikoien egitaraua landuko dugu». Herritarrei bertara agertzeko eskatu diete. Horretaz gain, ibartarrei jaietako danborrada «arrakastatsuan» izena emateko eskatu diete, «jada 80 elkartu baizara».



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendariak: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordeak: Iñigo Terradillos. **Kudeatzaileak:** Maider Garaikoetxea.
Publizitateak: 661 678 818 tolosa@iragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoetaldia: 687 410 022. anoetaldia@tolosaldeko hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Ibarra.** Jai egitaraurako azal lehiaketa helduentzat eta haurrentzat (argazkia, marrazkia, pintura...). Gaiak: jaiak. 300 euroko saria. Lanak Benito Izagirre kultur etxean aurkeztu behar dira.

■ **Tolosa.** Lizardi konpainian eskopetari gisa atera nahi duten neskek deitu telefono hauetara: 600 244693 edo 686 405932.

■ **Tolosa.** Afari turkiarra eta derviche dantza ostiralean Fronton jabetxean. Txartelak salgai Saikin, Fronton eta Egoki tabernetan.

■ **Tolosa.** Musika udalekuak Eduardo Mokoroa udal musika eskolan ekainaren 29tik uztailaren 10era, 9:30etik 13:30era, 4 eta 12 urte artekoentzat: jolasak, dantzaldiak, kontzertu didaktikoak, abesbatza, gimnasia... Izen-earmta, musika eskolan.

Irteerak

■ **Ibarra.** Ekainaren 20rako Baionara irteera antolatuta du Bizi nahi jubilatuta elkarteak. Bazkaria Oiarzunen. Izen-emaitea, elkartearen 28 eurotan (ez bazkideek, 30).

Kirolak

■ **Tolosa.** Alpino Uzturre elkarteak ekainaren 14rako Eulate (Nafarroa)-Kanpezun (Araba) irteera antolatuta du, Larreina, Arnaba, Cruz de Alda, San Cristobal eta Hornillos igoz (8 ordu). Izen-emaiteak, elkartearen, 943 65 27 89 edo alpinouzturre@hotmail.com.

■ **Tolosa.** I. San Joan Mus Txapelketa ekainaren 22an 11:00etatik aurrera Harizpe eta Iturriza elkarreetako bazkideentzat. Izen-emaitea, Iturriza elkartearen (Euskal Herria plaza) 10:00etatik 12:00etara bitarte. Zortzi erregetara jokatu de txapelketa.

Erakusketak

■ **Tolosa.** Turkesa pintura lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketak Kultur Etxean.
■ **Tolosa.** Lopez Tolosaren margolanak K-2 tabernan (Plaza Berria).
■ **Tolosa.** Iñaki Moreno Ruiz de Eguinoren erakusketa ekainaren 27ra arte.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Etxebeste, J.M. Gernikako arbolak, 3. 943 651040.
■ **Lekunberri.** Azpiroz, M.A. Aralar kalea, 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanetan eta iritziaren erantzunkizunik.

Soporgipinapa ipikapastopolapan

Tolosa » Sorgin on-on baten bisita izan dute Laskorain ikastolan; ukenduak eta hainbat bitxikeria ere ikasi dute.

ERREDAKZIOA

Sorgin hizkeran ez dute guztiz ikasi Laskoraingo txikiak, baina baten aurrean egotean, jakingo dute bai, zer esan eta nola.

Laskorain Ikastolako Haur Hezkuntzako ikasleak gauza misteriotsuak ari dira ikasten azken asteotan. Urtero bezala aurten ere, 4 eta 5 urtekoak hiruhileko osorako proiektu bat lantzen ari dira. Aurtengorako aukeratu duten gaia *Euskal Mitologia* da.

Dagoeneko antzinako euskaldunek zituzten sineskerie, pentsaerei eta gertaerei buruzko kontu mordoa ikasi badute ere, ikasturtea amaitu arteko egunetan ere izango dute, bai, oraindik zer ikasteko aukera: kondairak, konjuruak, abestiak, dantzak, lelendak...

Horretaz guztiaz gain, sorgin baten bisita ere izan dute. Hasieran, sorgin bat bisitan etorriko zitzaizela esan zieten, urduri eta beldurtu samar sentitu omen ziren, baina liburuetan eta irakurritan konturatu dira sorgin guztiak ez direla gaiztoak, ezta den-denak jatorrak ere. Sorginak gu bezalako



Ukenduak egin zituzten Juani Aristekin: urte askotan Laskoraingo sukaldaria izan da. HITZA

xeak omen dira: batzuk maltzur eta zitalak, eta beste batzuk bihotz onekoak. Haiei bisitan joan zitzaizena jator-jatorra da. Gainera, aurrez ere ezagutzen zuten, Ikas-

murtzeko, larruazala zaintzeko. Bisitan etorri zenean ere behin baino gehiagotan esan bagenion ere, «eskerrik asko Juani!»

Gehiago jakiteko, igandean

Jakizue, euskal mitologiari buruzko gauza gehiago jakin nahi izanez gero, datorren igandean, baduzue la horretarako aukera ezin hobea. «Euskal Mitologiari buruzko jaialdia eskainiko dugu HHko 3, 4 eta 5 urtekoak Usabalen 12:00etatik aurrera. Gonbidatuta zaudete denok!» Ah, eta kontu hauetan guztietan sinesten ez duzenok egin kontu segidako esatera honi: «Direnik ez da sinetsi behar; baina ez direnik ere ez da esan behar».

Ukendu magiko bat egiten, gaitz askotarako erremedioa egiten ikasi zuten sorginarekin

tolako sukaldaria izandakoa baita urte askoan. Juani Aristi da sorgin horren izena.

Ukendu magiko bat egiten, gaitz askotarako erremedioa egiten erakutsi zien, besteak beste: kolpeak sendatzeko, eztarriko mina sa-

A Agurrak



Urte askoan!

Arkaitz eta Nagore Balda Usandizaga (Alegia). Gaur Arkaitzek 7 urte, bihar Nagorek 4 urte. Zorionak aita eta amaren partetik.

urtebetetzeak - urrezko ezteiak - ezkontzak jaioberriak - jaunartzeak...

Mesede, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitza: Udaletxeko bulegoa

agurrak

